



OIARTZUNGO
UDALA

MARIA VICTORIA JOARISTI OLARIAGA AND., OIARTZUNGO
UDALAREN IDAZKARI BEZALA.

ZIURTATZEN DUT: Udal Osoak, 2014ko martxoaren 26an egindako
batzarraldian, ondorengo mozioa onartu zuela:

“ SOS ARRAZAKERIAK AURKEZTUTAKO MOZIOA

SOS Arrazakeria erakundearen proposamena Oiartzungo Udalari, ondoren
adierazitakoa Adierazpen Instituzionaltzat har dezan.

Joan den otsailaren 6an, Ceutara iritsi nahia gutxienez 15 lagun hil izanak eta
Guardia Zibilak haien aurka erabilitako indarkeriak iritzi publikoa asaldatu du.

Nazioarteko zuzenbide humanitarioak agintzen duen bizitzaren babesaren gainetik
mugen kontrola lehenestea ez dator bat gure legeriarekin ez eta gure balio moralekin.

Nola ahaztu, halaber, kanporatuak izan diren edo ihesera jo duten pertsona horien
herrialdeetako egoera ekonomiko eta sozialean Europako Batasunak duen
erantzukizuna.

Gertaera hauek berriro nabarmen erakutsi dute ze ondorio dakartzan Europako
Batasunaren migrazio politika mugen blindatze tematian oinarritzeak: Mediterraneo eta
EBeko hego muga hobi komun bihurtu dira.

Ceutako eskuhartzeak gizarte zibilaren eta politikarien gaitzespena eragin du, eta
poliziaren jokaeraren kritikaz gain ikerketa independentea eta erantzukizun politikoak
ere eskatu dira.

Gertatutako guztiari Espainiako barne ministroak argibide sinesgaitzekin erantzun
dio, Guardia Zibilaren jokaera babestu du eta uko egin dio Guardia Zibileko zuzendaria
karguabetezari, zeinaren dimisioa aho batez eskatu den.

Horretaz gain, Espainiako gobernuak iragarri du legeetan aldaketak egiteko asmoa
duela, etorkizunean poliziaren jokaera horiek babesteko. Jarrera hau bereziki larria
iruditzen zaigu, gertatutakoa onartzeaz gain espainiar eta europar legeriak egun
babesten dituen eskubideen murrizketa ekarriko duelako.

Honengatik guztiagatik, udal honek:

1.- Ceutara iritsi nahian otsailaren 6an hildako pertsonen heriotza deitoratzen du,
eta bere dolumina eskaintzen die haien senide eta lagunei.

2.- Guardia Zibilaren joakera gaitzesten du, bizitza arriskuan zuten pertsonak
lagundu ordez, haien kontra jotzeagatik.



OIARTZUNGO
UDALA

3.- Gertaerak ikertzeko batzorde independente bat sortzea eskatzen du, eta erantzukizun politikoak bere gain hartu behar dituenak har ditzala, baita Guardia Zibileko zuzendari orokorraren dimisioa ere.

4.- Espainiako gobernuari eskatzen dio ez dezala lege aldaketarik egin eskubideak mugatzeko. Bereziki deigarria da espainiar gobernuak aurreratutako asmoetan, aterpe bila dabilzan pertsonen nazioarteko babesa eragotziko liekeela.”

Eta horrela jasota gera dadin dagokion espedientean, ziu-tagiri hau ematen da, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera Alkate And.ren On-Iritziarekin batera, Oartzunen, bi mila eta hamalauko apirilaren batean.

O.I.
ALKATEAK,

